

Errefuxiatuen pasaia gerla denboran

E.: ez zukexun, eh, aiseta, ofizio hori, kontrabandan artzeko ofizio ori ez zukexun bate aiseta, eh, irrisku handiak pastu behar, eh!

M.: ba, ta jende pasatzen e ba, artzen zen.

E.: hale, eh?

M.: jendiak e hor pasten zien Iraun, oui, oui, bein xubeatar gazte bat etorri zen gue etxolaat zazpi gazteikin, Españaat eskapatzen zienak, eh! Hemen xerbitixia ez in nahiz, alo, alemanek laneat biltzen zuzten, ta gosiak, ez dakit, xantza ukan zuten, xerria hila ginien aitzineko astian, bi tripota jan zuzten ta gure asteko ogia.

E.: horrekilan...

M.: guk e Lekunberitik bear ginien eman, eh! Benan xantza ukan zuten, tripota jan zuten eta joan zien, eta egunaz: “ez ziea beldurrik?”, “non, et, et, et”, xuberatar gazte bat, hemeetzi urte zitin, gaizoa, eta...

E.: partitzen haat?

M.: eta arek paastu zitien Españaat, Iriberriko juntan, alo, han, Egurgiko juntan ezarri zitien, eta bera giileat eldu, ba bena alemanek largabistekin kusi zuzten beantegi, ikusi zuzten bestiak ez zuztela atxemain. Hua giilea heldu zelaik, Iraun arrestatu zuten, ta are, ta preso, ta arek erran zeen, ta ba, ez eh kontrabandan zela, kontraandista zela, ah, ez, ez, ez, “ta bai, alako tokian utzia ut bizkarreko zakia, ta sakarina barnian”. Zakia utzi zien gure etxolan, giilatekoan hartzeko, xilintzo eta...

E.: ukan zixin ideia, eh!

M.: eta hantik asteartian-edo heldu dira bi guarda, jandarma eta aleman bat, hain zakien xeka.

E.: ze lotseria!

M.: ta guk: “ba, ba, zakia ortxe utzia du, ba”, eta beatzen dute, ta ba, ba, en effec, sakarina, kusten dute, guardak kontent zien kontraandako ixtorioa zen, ta jandarmak ez du geiokoik deus e galditen, ta alemanak oh, soldado zaar bat zen, “ah ya, ya” arek e, ta ez zuten galdiin mutiko orrek baziena launik, ez jeus e, jandarmek, ezta guardek e, hola pastu zen.

E.: zonbat alako, eh!

M.: ba, bana hua igorri zuten berdin-berdina Alemaniaa kanetaat, ta jin omen zen eri, osaarria galduik,

E.: xubeatar au?

M.: ba, Irigarai izena. Ez ginien geo sekula xantzaik ukan elakatzeko, bena jakin ginien ola:
“ez, ez, eri jin duk”, gaizoa.

E.: haat behin joanik ez bita...

M.: ah, ta geo sofriaazten zeeten, eh! ui, oui, oui.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala